

Erosketak egiten (2)

- Ama : Gaur aste guziko erosketak egin behar ditugu; erna gaitezen !
- Haurra : Bikain ! Kirol-zapatak erosiko dizkidazu !
- Ama : Ez, gaur janaria baizik ez dugu erosiko !
- Haurra : Badakizu, ama, askariko zituak aspalditik bururatuak ditugula.
- Ama : Bai baina errana dizut ez ditugula gehiago erosiko azukre sobera dutelako.
- Haurra : Eta zer janen dut beraz ? Badakizu ez dudala besterik maite !
- Ama : Bakea emazu ! Fruituak, ogia eta ezta jan itzazu. Bitaminaz beterik dira.
- Haurra : Berk ! Ezta hastio dut ! Pizza bat erosten dugu ?
- Ama : Ados. Ostiral arratseko atxikiko dugu. Entsalada on batekin afari hauta ukanen dugu.
- Haurra : Eta Koka ? Koka erosten bagenu ?
- Ama : Ez ! Badakizu arras ontsa edari horren kontra garela ! Are, zoazi laster batez esneki zenbaiten erostera. Maite dituzunak hauta itzazu baina prezioari kasu eginez.
- Haurra : Bai, badakit. Ez merkeenak eta ez karioenak. Erosten ahalko ditut « Mars » batzuk ?
- Ama : Ez eta ez ! Baina zer duzu egun ? Azken aldia da erosketak elkarrekin egiten ditugula !
- Haurra : Berdin zait ! Zernahi gisaz beti hola da zurekin ! Ez duzu sekula nik maite dudana erosten ! Ez zira amatxi bezala ! Hark goxokiak eta Koka-Kola erosten dizkit.
- Ama : A, ez dudala maite duzuna erosten ? Hola baldin bada, pizza bere tokian pausa ezazu eta gero txokolatezko jogurt goxo horiek ere hartu tokian ezar itzazu. Nik ditut hautatuko.
- Hau sarrazu buruan, koska tzarra, zu : oro nahiz, oro gal !

Jokalariak : Ama eta haurra
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti